

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Uranga Uranga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Zestoako Olazar baserrian jaio zen, baina Donostian bizi da bi urte zituenetik. Ama Azpeitikoa zuen, aita zestoarra. Lau senide ziren. 20 urte bete arte bulebarreko bodega batean bizi izan zen Mertxe. Etxebizitza moduan zegoen egokituta, baina iluna eta umela zen. Ama eraikineko "portera" zen, eta hainbat garbiketa lan egiten zituen bodegan bizitzearen truke. Aita igeltseroa zen. Mertxe Elizarango mojen ikastetxean ibili zen, eta ondoren josten ikasten hasi zen, baina 14 urterekin tuberkulosia izan zuen, eta urtebetetik gora egin zuen gaixo. Gero puntua egiten ikasi zuen, Ategorrietako moja batzuekin, eta bere kontura hasi zen haur arropak egiten. Oargi taldean ibili zen gaztetan: mendira joaten, antzerkia egiten... Jarrai antzerki taldean ere egon zen. JOC-en (Juventudes Obreras Catolicas) ere ibili zen, baita ETA-n ere. Komunistatzat du bere burua. Langileen eta emakumeen eskubideen alde borrokatu du batez ere, abortuaren alde besteak beste. Azken urteetan baserriko oilaskoak hazten dihardu, ahizparekin batera.

Zintak

DON-055

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-09
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Zestoan jaio, Donostiako bodega batean bizi

- **Erref:** DON-055/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zestoako Olazar baserrian jaioa. Ama Azpeitikoa zen, eta aitari gerratik bueltan ez zioten herrian sarzten utzi. Orduan, Donostiara joan ziren bizitzera. Bodega batean bizi izan zen 20 urte bete arte.

2. Bodega batean bizitzea I

- **Erref:** DON-055/003
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:05:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Boulevardeko bodega batean bizi ziren. Eraikinean zer zegoen azaltzen du. Ikatza gordetzeko tokiaren ondoan, bi gela eta sukaldea zeuden. Behin sua piztu zen, eta, horren ondorioz, patiora ateratzeko eskailerak egin zizkieten.

3. Bodega batean bizitzea II

- **Erref:** DON-055/004
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Bodega batean bizitzea zer zen. Lagunak etxea ikustera joaten ziren. Etxe normal batera joan zenean, argitasuna zer den konturatu zen.

4. Ama etxeak garbitzen; gerraosteko miseria

- **Erref:** DON-055/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Diru gutxi zuten. Umetan, platanoak erosteko ilaran egoten ziren. Ama portera zen, eta eraikineko garbiketak egiten zituen, baita etxeetakoak ere, bodegan bizitzearen truke. Elizaran moja eskolan ibili zen, eta eskolara joan aurretik errazionamendu bila joaten ziren. Biteri kalean pobreei jaten ematen zieten, eta hara ere joaten ziren.

5. Baserritik ekartzen zuten jatekoa

- **Erref:** DON-055/006
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Guraso biak baserritarrek ziren, eta jatekoa ekartzen zuten handik, Azpeitiatik eta Zestoatik. Kontrabandoa zen, eta Urolako trenean ekartzen zuten. Amak trenbidera botatzen zuen paketea, eta bila joaten ziren. Goserik ez zuen pasatu. Inbidia bai, ikaskide batek eramaten zuen ogitartekoari begira.

6. Olio botila puskatu zitzaienekoa

- **Erref:** DON-055/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:14:48. **Bukatu:** 00:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendua. San Jeronimo kaleko denda batera joaten ziren erostera. Olio botila puskatu zitzaien, eta asko ordaindutakoa zenez, beldurrez joan ziren etxera.

7. Aita, gudari moduan ibilia

- **Erref:** DON-055/008
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aita gerrara joan zen, gudari moduan, eta gero ez zioten Zestoara itzultzen utzi. Zapata txiki batzuk ekarri zizkion gerratik. Ez zen kartzelan egon; amaren aldeko aitona karlista zen, eta nolabait libratu zen.

8. Zestoara joaten ziren baserrira, umetan

- **Erref:** DON-055/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:21:02

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zestoara umetatik joaten ziren, amonarenera. Umetan pleura izan zuen, eta baserrian egin zituen hilabete batzuk. Baserrian zer zuten eta nolakoa zen. Janariaren gela.

9. Mojetako oroitzapenak

- **Erref:** DON-055/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskola garaiko oroitzapenak. Elizaranen ibili zen 14 urte arte. Bihurri samarra zen, eta ez zuten begi onez ikusten. Nota txarrak ateratzen zituen. Bretxara bidaltzen zuten, oiloentzat letxuga batzera, eta nota altxatzen zuen hala.

10. Aberatsentzat lanean, ume-umetatik

- **Erref:** DON-055/012
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:23:43. **Bukatu:** 00:28:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskolatik etxera joaten zen, lana izaten zuelako han. Igogailua garbitzen zuen, 10-12 urterekin. Behin baino gehiagotan jarri zen martxan, bera gainean zegoela. Eskailerak ere garbitzen zituen. Anaietako bat seminaria joan zen ikastera; bestea aitari laguntzera joaten zen, igeltsero. Laugarren ahizpa Donostian jaio zen; artean txikia zenez, berak lagundu behar zion amari. Aberatsen kontrako gorrotoa piztu zitzaion, eta horregatik komunista egin zen gerora.

11. Umetan gaztelura eta hondartzara

- **Erref:** DON-055/013
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:28:14. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Boulevarrera joaten ziren jolastera, eta udan hondartzara. Amak egin zion bainujantzia. Gaztelura ere joaten ziren. Anaiaren lagunekin ibiltzen zen jolasten, bai gazteluan bai hondartzan. Belaunak markatuta izaten zituzten beti.

12. Hondartzan, toldo publikoa

- **Erref:** DON-055/014
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Orduko bainujantziak. Beraiek etxean egindako zaku modukoak zituzten. Toldo publikoa zegoen, eta gurasoak han egoten ziren. Aberatsek beraien toldoak zituzten, inude dotoreak... aberatsen umeak ere dotore beti. Aberatsek ez zuten beraiekin jolasten.

13. Umetako jolasak eta aisialdi garaia

- **Erref:** DON-055/015
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:34:09. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neska-mutilek elkarrekin jolasten zuten, anaia baten lagunekin. Kromotan eta kaniketan jolasten zuen. Etxean ere jolasten zuen kanikekin. Tabekin ere ibiltzen zen. Partxisean eta kartetan ere bai, etxean. Zinemara nora joaten ziren, debalde zelako. Elizaran ikastetxea ordaindu egiten zuten. Mendira joaten ziren. Merenderoetara joateko ohitura ere bazuten, etxetik janaria eramanda.

14. Erregeei egindako eskaerak

- **Erref:** DON-055/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Erregeei zer eskatzen zieten Gabonetan. Behin Loidi ardoa eskatu zieten

anaiek eta biek. Beste behin akordeoia eskatu zuen, baina ez zioten ekarri; nota bat utzi zioten.

15. Josten ikasten, Bergara kalean

- **Erref:** DON-055/017
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

14 urte arte ibili zen mojetan, eta gero Bergara kalean ibili zen josten ikasten. Kaja handi batekin bidaltzen zuten arropa banatzera.

16. Tuberkulosia harrapatu zuen

- **Erref:** DON-055/018
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:41:14. **Bukatu:** 00:42:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Tuberkulosia harrapatu zuen, eta urtebete baino gehiagoan gaixo egon zen. Sendagaia.

17. Haurrentzat arropak josten

- **Erref:** DON-055/019
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:42:22. **Bukatu:** 00:45:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Tuberkulositik sendatzean, "nido de aveja" ikastera joan zen Ategorrietako mojegana. Haurrentzat arropak egiten ibili da bere kontura, urte askoan. Amaren josteko makinarekin josten zuen. Ama beti lanean ezagutu zuen. Haria non erosten zuen.

18. Frankismoa eta euskara

- **Erref:** DON-055/020
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:45:53. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Euskararen egoera Donostian. Franco joaten zenean, l jentea kalera joaten ziren ikustera. Elizarenen zebilela, falangeko emakume bat joaten zitzaien eta "Cara al sol" kantatu behar. Klean erdaraz egiten zien amak.

19. Oargi mendi taldean

- **Erref:** DON-055/021
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:48:24. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Oargi mendi taldean hasi zenean, euskaraz hitz egin asko ez, baina euskaraz abesten zuten asko. Kantu "arrazistak" ere bai. Umetatik entzun du euskara etxean.

20. Senideekin beti euskaraz

- **Erref:** DON-055/022
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:51:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Anai-arrebekin euskaraz egin du beti. Bere senarrak ez daki. ETAn ibilia da, eta ez da nazionalista, baina bai ezkerrekoa. Ama beraiekin bizi zen, eta harekin beti euskaraz, eta baita hurrekin ere. Hitanoa erabiltzen dute senideen artean; ilobekin zailagoa gertatzen zaio.

21. Euskararen eta elizaren aldeko lanetan

- **Erref:** DON-055/023
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:51:36. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Euskararen alde lan egindakoa da, eta garai batean oso elizkoia izan zen; gero komunismora bildu zen (semea bai, baina alaba ez zuen bataiatu).

22. JOCetik ETara

- **Erref:** DON-055/024
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:57:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

JOCen ibili zen: Juventudes Obreras Catolicas. Langile mugimenduan eta mugimendu feministan. Elizatik bidali egin zituzten, grebak antolatzen zituztelako. JOCeiko asko ETAn sartu ziren. Bilera klandestinoak egiten zituzten, eta tiro praktikak egiteko puntuak egon zen.

23. ETatik ETA Sextara

- **Erref:** DON-055/025
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 01:00:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Ez zegoen ados ETako alderdi batzuekin, eta ETA Sextara pasatu zen gero. Donostiako emakumeen asanbladetan ibili zen, eta abortoarekin alde egin zuen lana.</p>

24. ETAn ibili zeneko garaia

- **Erref:** DON-055/026
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:00:04. **Bukatu:** 01:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

ETA barruan zegoenean, gauzak pasatzen zituzten bestaldera (paperak). Irunen Aberri Egunean manifestazioa antolatu zuten, kartelak egin... Grisen aurrean korrika ibiltzen zen, eta askotan kolpatu zuten. Deban gertatutako anekdota: ez zekiten nondik heldu, eta ihes egin zuen. Saltsa guztietan ibili da. Euskara irakasten ere ibili da.

25. Noiz arte jarraitu zuen josten

- **Erref:** DON-055/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:03:51. **Bukatu:** 01:04:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Josten jarraitu zuen, baita umeak jaiotakoan ere. Ama gaixotu zenean, lana utzi zuen.

26. Emakumeen aldeko mugimenduko bilerak

- **Erref:** DON-055/028
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:04:41. **Bukatu:** 01:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeen aldeko mugimenduan ibili zenean non biltzen ziren azaltzen du. Etxetan ere biltzen ziren.

27. Antzerkian ibili zen

- **Erref:** DON-055/029
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:05:58. **Bukatu:** 01:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerkia ere egin zuen, Oargi mendi taldean zebilenean. Jarrai antzerki taldean hasi zen, eta aurretik Maria Dolores Agirrerekin ere ibili zen.</p>

28. Errifak saltzen baterako eta besterako

- **Erref:** DON-055/030
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:08:01. **Bukatu:** 01:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Bizkaiko lantegiak

Laburpena:

Abestu ere egiten zuen, Gabonetan. Mojetan zebilela, etxez etxe ibiltzen zen itsulapiko batekin. Eta errifak ere saldu ditu. Parte Zaharreko auzo elkartean ere ibili zen. Trinitateko festa (abuztuaren 31koa) beraiek antolatu zuten lehenengoz. Presoentzat dirua batzen zuten, eta kartzelara joateko puntuan egon zen: Franco hil zelako libratu zen, amnistiari esker.

29. Antzerkian ibili zen II

- **Erref:** DON-055/031
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:11:25. **Bukatu:** 01:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Maria Dolores Agirreren antzezlanak euskal gaiekin lotutakoak ziren. Jarrai antzerki taldekoa, berriz, modako obren itzulpenak ziren. Jarrai taldean jende asko zebilen. Iñaki Beobide zen zuzendaria. Umeak izan eta ama gaixotu zenean utzi zuen antzerkia eta gainerako dena.</p>

30. Abortoaren aldeko lanetan

- **Erref:** DON-055/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:14:55. **Bukatu:** 01:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Umeak hazitakoan berriz hasi zen mugitzen. Emakumeen lehenengo asanbladan egon zen. Abortuaren aldeko lanak. Emakumeak Erbeheretara bidaltzen zituzten abortatzera. Medikuek osasun azterketa egiten zieten bueltan.</p>

31. Abortoaren aldeko lanetan II

- **Erref:** DON-055/033
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:17:35. **Bukatu:** 01:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Abortatzea dirua kostatzen zen, urruti joan behar zelako. Neska askok ez zuten dirurik, eta zein egoera bizi zituzten kontatzen du. Batek bere buruaz beste egin zuen.</p>

32. Gizartea oso matxista zen

- **Erref:** DON-055/034
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:20:50. **Bukatu:** 01:24:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Gizartea askoz matxistagoa zen lehen. Etxeko lanak emakumeen kontu; anaiek ez zuten ezer egiten etxean. Arropa nola garbitzen zuten. Irratia bazuten. Ondo konpontzen ziren, baina lan asko egitea tokatu zitzaion.

33. Boulebarra nolakoa zen

- **Erref:** DON-055/035
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:24:22. **Bukatu:** 01:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Boulebarra nolakoa zen azaltzen du. Tranbiak. Hildakoak zaldi-karrozetan eramaten zituzten Santa Maria parrokiara. Kategoriaren arabera, zaldiak gehiago ala gutxiago ziren. Hildakoak etxean izaten ziren; aita hil zenean, bodegan izan zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com